

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak hamabi ibilgailu ofizial salduko ditu eta, hala, 284.000 euro aurreztuko dituela kalkulatu du

*Jiménez presidenteordeak legegintzaldi honetan Parke Mugikorraren kudeaketak beteko dituen doitasun helburuak zeintzuk diren azaldu du*

Viernes, 26 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak Parke Mugikorra osatzen duten hamabi ibilgailu ofizial salduko ditu. Neurri horren bidez, Foru Erkidegoko diru-kutxek 284.000 euro aurreztuko dituzte, Roberto Jiménez lehen presidenteorde eta Lehendakarietzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariak iragarri duenaren arabera.

Lehendakariordeak, gaurko prentsaurrekoan, Nafarroako Gobernuaren Parke Mugikorrak dituen bitarteko materialen berri eman du, eta 18 erabiltzaileri eskaintzen zaien eta 37 ibilgailuk osatzen duten zerbitzuaren funtzionamendu arauak azaldu ditu. Gastua murrizteko lehen neurri horren bidez, ibilgailuen kopurua 25era murriztuko da.

Asmoa zera da: tamainuari dagokionez ibilgailu ofizial egokiak izatea lortzea, baliabideei dagokienez soilak, mantentzeko merkeenak direnak eta ondo kudeatuta daudenak.

Helburu horrekin batera, liburu zuri bat egitea da asmoa, eta zerbitzu honen eta beste batzuen onuradunak diren goi-kargudunek liburu horretan jasotakora egokitu beharko dira. Horrez gain, legegintzaldian zehar, beharizanen eta baliabide ekonomikoen arabera, Parke Mugikorreko ibilgailuak berrituko dira. Horri esker, erdiko gamakoak diren ibilgailuen zerrenda lortzea da helburua, gutxiago kutsatzen dutenak eta orain arteko ibilgailuen gastua baino txikiagoa dutenak. Horren haritik, ibilgailuak errentan hartzeko moduak ere aztertuko dira, hala, ibilgailu ofizialak eskura izango ditu Gobernuak ibilgailu ofizialen konponketa eta mantentze gastuei aurre egin beharrik izan gabe. Gainera, lantegiekin eta hornitzaileekin hizarmenak izenpetuko dira kostuak merketzeko.

Gogorarazi behar da konponketengatik gastua 443.000 eurorena izan zela iragan legegintzaldian. Aseguruen gastua 52.000 euro eta erregaiena 381.000 euro izan ziren.

### Parke Mugikorra

Nafarroako Gobernuaren Parke Mugikorra 53 ibilgailuk osatzen dute. Horietatik 37 instituzioetakoak dira eta 16 sailtakoak. Instituzioetako ibilgailuak honako hauek dira: 15 VW Phaeton, 2 Audi A8, 11 Audi A6, BMV 1 715 modeloa, 2 VW Tuareg, VW Passat 1, 2 VW Bora eta 3 Citroen C5.

37 ibilgailu horiek erosteak 2,3 milioi euroko gastua eragin du

urteetan zehar, eta batez besteko erosketaren prezioa 64.148 euro izan da. Orain, ibilgailu horien balio salgarria 734.000 euro dira gutxi-gorabehera.

Horien bidez, 18 erabiltzailearen beharrezko erantzuten zaie: Nafarroako Gobernuko hamar kiderenak (Lehendakaria, zortzi kontseilariak eta Barneko zuzendari nagusia), hiru lehendakari ohirenak (Miguel Sanz, Juan Cruz Alli eta Jaime Ignacio del Burgo), Nafarroako Parlamentuko, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko eta Comptos Ganberako presidenteenak, Arartekoarenak eta Nafarroako fiskalburuarenak.

Hauek dira salduko diren ibilgailuak: 6 VW Phaeton, BMW 1 715 modeloa eta 5 Audi A6. Hortaz, instituzioetako ibilgailuak honako hauek izango dira: 9 VW Phaeton, 2 Audi A8, 6 Audi A6, 2 VW Tuareg, VW Passat 1, 2 VW Bora eta 3 Citroen C5.